



**KUADRILLAKO BATZARRAK 2024KO
MARTXOAREN 19AN EGINDAKO EZOHIKO
BILKURAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE
JUNTA DE CUADRILLA CELEBRADA EL DÍA 19
DE MARZO DE 2024.**

Santikurutz Kanpezun, 2024ko martxoaren 19an, Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egoitzan, Kuadrillako Batzarra bildu da, ezohiko bilkuran eta lehenengo deialdian, Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jauna buru dela, eta honako batzarkideak elkartu dira:

Betolaza Pinedo, Juan José
Elorza Lorenzo, Lucía
Gaintzarain González de Durana, Urtzi
Moraza Pérez, Enrique Javier
Nuñez Murillo, Rafael
Quintana Urrea, Myriam.
Ramos Fernández, Gemma
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai

Larraitz Waliño Arana andreak ezin etorria adierazi du.

Era berean, Álvaro Castillo Cordero jauna, Arabako Mendialdeko Kuadrillako gerente-letrada, bertaratu da.

Presidenteak bilkura hasi du, 18:35ean, eta jendurrekotasun du, hasteko beharrezkoa den bertaratze-quoruma egiaztatu ondoren, TAOleko 46.2 c artikulua, AJAko 90. artikulua eta Kuadrillei buruzko 63/1989 Foru Arauaren 25. artikulua arabera, gai-zerrendan jasotako honako gai hauek aztertu dira:

**1.- ABENDUAREN 27AN EGINDAKO EZOHIKO
BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA
BADAGOKIO**

Presidenteak galdetu du ea batzarkideren batek oharren bat egin nahi duen 2023ko abenduaren 27ean egindako ezohiko bilkuraren aktari buruz, zeina bilkurarako deialdiarekin batera bidali baitzen.

En Santa Cruz de Campezo, a 19 de marzo de 2024, en la sede de la Cuadrilla de Montaña Alavesa, se reúne la Junta de Cuadrilla, en sesión extraordinaria y en primera convocatoria, bajo la presidencia del Sr. D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz, y concurren los junteros y las junteras siguientes:

Betolaza Pinedo, Juan José
Elorza Lorenzo, Lucía
Gaintzarain González de Durana, Urtzi
Moraza Pérez, Enrique Javier
Nuñez Murillo, Rafael
Quintana Urrea, Myriam.
Ramos Fernández, Gemma
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai

Excusa su asistencia la Sra. D^a. Larraitz Waliño Arana.

Así mismo, asiste a la Sesión D. Álvaro Castillo Cordero, gerente-letrado de la Cuadrilla de Montaña Alavesa.

Abierta la Sesión y declarada pública por la presidencia a las 18:35 horas, previa comprobación del quórum de asistencia preciso para que pueda ser iniciada, de acuerdo con los artículos 46.2 c de la LBRL, 90 del ROF y 25 de la Norma Foral 63/1989 de Cuadrillas, se procede a conocer de los asuntos siguientes incluidos en el Orden del día:

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE DEL ACTA DE
LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA EL
27 DE DICIEMBRE DEL 2023**

El presidente pregunta si algún juntero o juntera quiere formular alguna observación al acta de la sesión extraordinaria celebrada el 27 de diciembre del 2023 que se remitió junto



Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako bederatzi batzarkideen aldeko botoarekin, aho batez erabaki du 2023ko abenduaren 27ean egindako ezohiko bilkuraren akta ONARTZEA.

2. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, M8REN HARIRAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Presidenteak adierazi du EUDELek proposatutako M8ko adierazpena onartzea iradokitzen duela, eta Myriam Quintana Urrea batzarkideak aipatutako adierazpen proposamena irakurtzeari ekin dio:

2024ko martxoaren 8aren harirako Adierazpena

Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta

con la convocatoria de sesión.

La Junta de Cuadrilla, por unanimidad, con el voto a favor de los/as nueve junteros/as asistentes, acuerda APROBAR el acta de la sesión extraordinaria celebrada el 27 de diciembre del 2023.

2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA SOLICITUD PROPUESTA DE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL 8M.

El presidente interviene para informar de que propone la aprobación de la declaración con motivo del 8M propuesta por EUDEL, a la que procede a dar lectura la juntera Myriam Quintana Urrea:

Declaración con motivo del 8 de marzo de 2024

En este día internacional de las mujeres, es de justicia que nuestra sociedad reconozca la deuda con las generaciones de mujeres que han contribuido a las transformaciones feministas a lo largo de la historia, tanto desde sus resistencias contra los mandatos y estereotipos de género, como desde las luchas colectivas del movimiento feminista.

El sistema patriarcal ha invisibilizado las ideas y negado el activismo político y social de las mujeres, silenciando sus reivindicaciones y borrando las evidencias de sus logros en favor de sus comunidades. Además, se han ocultado sistemáticamente las aportaciones de las mujeres de distintos orígenes y tradiciones culturales, racializadas, lesbianas, con diversidad funcional y de las mujeres mayores

En concreto, ponemos el foco en la generación actual de mujeres mayores, la cual es sistemáticamente estereotipada y discriminada, convirtiéndola en



diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkututzen ari da, hala nola prekaritatea eta pobretzea, nahi ez den bakardatea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealitatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Kuadrillok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeko eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAK konpromiso hauek hartzen ditu:

socialmente irrelevante. Además, esta invisibilidad está ocultando situaciones de mayor vulnerabilidad como la precariedad y empobrecimiento, la soledad no deseada, problemas de salud y formas de violencia machista.

El proceso de empoderamiento de las mujeres requiere reconocerse como herederas de una tradición teórica, política y filosófica feminista. Por ello, poner en valor los saberes y la visión crítica de la realidad que tienen las mujeres mayores, contribuye al ejercicio de reparación de la memoria histórica. Dicha reparación nos permite reconocer a nuestras predecesoras y garantizar la transmisión intergeneracional que conecte pasado, presente y futuro.

Este 8 de marzo, con motivo del día internacional de las mujeres, desde las diferentes instituciones debemos promover todas las estrategias y mecanismos a nuestro alcance para visibilizar la genealogía feminista y reparar los olvidos de la historia con las mujeres.

Las Cuadrillas, como instituciones más cercanas a la ciudadanía, tenemos la oportunidad y responsabilidad de rescatar, en el ámbito local, la historia de generaciones de mujeres y de reconocer el valor que las mujeres y las luchas feministas han aportado a la vida de los municipios, empezando por la generación actual de mujeres mayores. Por tanto, la CUADRILLA DE MONTAÑA ALAVESA se compromete a:



- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministetarako.
- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten** laguntzea.
- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko **belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketa**-guneak babestea, ahalduntze feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezzen.
- **Emakumeen ikusgarritasun soziala** sustatzea ikuspegi intersektionalaz, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.
- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman-eta partaidetza-moduetan** arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten **adineko emakumeei**, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean, eta konpentsazio-neurriak aztertu eta artikulatzea.
- Desarrollar proyectos que **reconozcan y rescaten la memoria** histórica local de las mujeres para crear genealogía, desde las referentes próximas, hasta los grupos feministas.
- Contribuir al **reconocimiento de los movimientos feministas** que han articulado la resistencia y respuesta al sistema en cada momento histórico, en las distintas tradiciones y entornos culturales.
- Apoyar los espacios de **encuentro y diálogo intergeneracional** para intercambio de conocimientos y experiencias, como espacios de empoderamiento feminista y alianza de mujeres de diferentes edades y condiciones.
- Promover la **visibilidad social de las mujeres, especialmente de las mujeres mayores** en toda su diversidad, y combatir el edadismo, transformando la imagen que predomina en la sociedad sobre la vejez de las mujeres, basada en la edad y en los estereotipos con enfoque interseccional.
- Impulsar proyectos que pongan especial atención en las experiencias y en las formas de **relación y participación** de las mujeres mayores en el ámbito público, en toda su diversidad.
- Apoyar ante las instituciones competentes la demanda de ingresos y pensiones que garanticen el **empoderamiento económico a las mujeres mayores** de rentas más bajas, especialmente a las viudas, y que se estudien y articulen medidas de



- Adineko emakumeentzat, bereziki alargunentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikoak** ezagutaraztea.

- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea beren herrietan, adineko emakumeei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.

- Adineko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren eragina** eta hura gauzatzeko **moduak ikertzea** eta horietan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.

- BERDINSAREA sarearen bidez, EUDELen eta Emakunderen laguntzarekin, udalerriak emakumeen tokiko **memoria berreskuratzeko** abian jartzen ari diren **ekimenak ezagutaraztea eta ikusaraztea**.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egin da, eta aho batez onartu da M8aren harirako adierazpen instituzionala.

3.- BIDE BERDEAREN INTERPRETAZIO-ZENTROAREN ETA KUADRILLAKO ESKUALDEKO TURISMO-BULEGOAREN KUDEAKETA-, SUSTAPEN- ETA ARRETAZERBITZUAREN KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Presidenteak adierazi duenez, lizitatu ondoren, interpretazio-zentroa arautzen duen kontratua 2021eko apirilaren 30ean formalizatu zen NATOURING TURISMO, COMUNICACIÓN Y MEDIO AMBIENTE SL eslependunarekin. Era berean, aipatu du kontratu horrek bi urteko exekuzio-epea zuela hitzartuta 2021eko maiatzaren 1etik aurrera, eta epe hori 2023ko apirilean amaitu zela.

compensación.

- Dar a conocer las **ayudas y prestaciones económicas** existentes para las mujeres mayores, especialmente las viudas.

- Reforzar los **servicios públicos de apoyo y cuidados** de competencia municipal en sus localidades, que permitan a las mujeres mayores mantener su autonomía y activismo.

- Investigar, profundizar en el conocimiento de la **incidencia y las formas** en las que se ejerce la **violencia machista** contra las mujeres mayores, a fin de articular respuestas adecuadas a su realidad y necesidades.

- Difundir y dar visibilidad a través de la red BERDINSAREA, con la colaboración de EUDEL y Emakunde, a las iniciativas que los municipios están poniendo en marcha **para rescatar la memoria local de las mujeres**.

Debatido el asunto, se procede a la votación, quedando aprobada por unanimidad la propuesta de declaración institucional con motivo del 8M.

3.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA SEGUNDA PRÓRROGA DEL CONTRATO DEL SERVICIO DE GESTIÓN, PROMOCIÓN Y ATENCIÓN DEL CENTRO DE INTERPRETACIÓN DE LA VÍA VERDE Y OFICINA DE TURISMO COMARCAL DE LA CUADRILLA.

El presidente indica que el, tras haberse licitado, el contrato que rige el centro de interpretación se formalizó el 30 de abril de 2021 con la adjudicataria NATOURING TURISMO, COMUNICACIÓN Y MEDIO AMBIENTE S.L. Menciona, a su vez, que dicho contrato tenía estipulado un plazo de ejecución de dos años desde el 1 de mayo de 2021, plazo que venció en abril de 2023.



Gerente-letraduak adierazi du Kuadrilla Batzarrak 2023ko martxoaren 15ean egindako ezohiko bilkuran kontratu horren lehen luzapena onartu zuela, eta urtebeteko epe baterako indarrean sartu zela.

Gerente-letraduak adierazi du, gainera, lehen luzapenaren indarraldiaren amaiera bat datorrela prezioaren bigarren eguneraketarekin. Kasu honetan, Administrazio Preskripzioen Agirietan xedatutakoaren arabera, eta gerente-letraduaren txostena ikusita, prezio igoera kalkulatzeko, 2024an sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera berarekin (% 2) eguneratu behar da eskainitako prezioaren % 80. Horren guztiaren ondorioz, kontratuaren urte bakoitzaren prezioa 247,14 € igoko da, BEZik gabe. Horrek 15.693,51 € ematen ditu, BEZik gabe, irekitzeko egunen kopurua berdina baldin bada.

Eguneratze-irizpide horiek orduko prezioari aplikatuta, hori baita benetan erabakigarria, orduko prezioa 15,81 €-tik (BEZik gabe) orduko 16,06 €-ra (BEZik gabe) igoko da, eta horrek, BEZa barne, orduko 19,44 € ematen ditu.

Xedapen-zatia:

Kontratu honen lehenengo luzapena laster amaituko dela kontuan harturik, turismo-kanpaina hasi baino lehen.

Aurretik hitzartutakoaz gain, beste bi luzapen egin daitezkeela ikusita, bakoitza urtebetekoa izanik, kontratuaren iraupen osoa bost urtera luzatu arte.

Kontuan hartuta esleipendunak ez duela Administrazio Preskripzioen Pleguan horretarako ezarritako epean ez luzatzeko asmorik agertu.

Idazkaritzaren eta Kontuhartzaitzaren arloan aldeko txostenak ikusita.

El gerente-letrado indica que en sesión extraordinaria de junta de Cuadrilla de 15 de marzo de 2023 se aprobó la primera prórroga del referido contrato, que entró en vigor por una anualidad.

El gerente-letrado refiere, además, que el vencimiento de la primera prórroga coincide con la segunda actualización del precio. En este caso, según lo dispuesto en los Pliegos de Prescripciones Administrativas y a la vista del informe del gerente-letrado, el incremento se calcula a base de actualizar el 80 % del precio ofertado con el mismo incremento retributivo del personal al servicio del sector público en el año 2024 (2 %). Todo ello hace que el precio de cada anualidad de contrato aumente en 247,14 €, IVA no incluido, lo cual da un total de 15.693,51 €, IVA excluido, si el número de días de apertura es idéntico.

Aplicando estos criterios de actualización al precio hora, que es lo realmente determinante, se pasa de un precio hora de 15,81 € IVA excluido, a un precio hora de 16,06 €, IVA excluido, que, incluyendo IVA da un total de 19,44 €/hora.

Parte dispositiva:

Resultando que la primera de las prórrogas de este contrato termina su vigencia próximamente, a las puertas del inicio de la campaña turística.

Visto que es posible hacer otras dos prórrogas adicionales a la ya acordada, de un año cada una, hasta alargar la duración total del contrato a cinco años.

Visto que la adjudicataria no ha mostrado la voluntad de no prorrogarlo en el plazo estipulado para ello en los Pliegos de Prescripciones Administrativas.

Vistos los informes favorables en materia de Secretaría y de Intervención.



Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratutakoek honako hau erabaki dute aho batez, bederatzi aldeko botoekin:

Debatido el asunto, por unanimidad de los asistentes, con nueve votos favorables, se acuerda:

LEHENENGOA.- Kuadrillako bide berdearen interpretazio-zentroaren eta eskualdeko turismo-bulegoaren kudeaketa-, sustapen- eta arreta-zerbitzuen kontratua urtebetez luzatzea.

BIGARRENA.- Prezioa eguneratzea proposamen teknikoan oinarrituta, eta orduko 16,06 € fakturatu, BEZik gabe, 2024ko maiatzaren 1etik 2025eko apirilaren 30era bitarteko urterokoari begira gastua baimendu eta xedatuz.

HIRUGARRENA. – Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea esleipendunarekin lehen luzapeneko kontratua agiria sinatzeko.

LAUGARRENA.- Erabaki hau esleipendunari jakinaraztea eta luzapeneko kontratua-agiria sinatzeko eskatzea.

PRIMERO.- Prorrogar el contrato de servicios de gestión, promoción y atención del centro de interpretación de la vía verde y oficina de turismo comarcal de la Cuadrilla por una anualidad.

SEGUNDO.- Actualizar el precio en base a la propuesta técnica, facturando cada hora a 16,06 €, IVA excluido, autorizando y disponiendo el gasto de cara a la anualidad del 1 de mayo de 2024 al 30 de abril de 2025.

TERCERO. – Facultar al presidente de la Cuadrilla para la firma del documento contractual de primera prórroga con la adjudicataria.

CUARTO.- Notificar el presente acuerdo a la adjudicataria y emplazarla a la firma del documento contractual de prórroga.

4. BIDE BERDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROAREN ETA KUADRILLAKO ESKUALDEKO TURISMO-BULEGOAREN EGUTEGIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Presidenteak prestatu den turismo-bulegoaren egutegi-proposamenaren berri eman du, jarraian jasota geratzen dena:

4. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CALENDARIO DEL CENTRO DE INTERPRETACIÓN DE LA VÍA VERDE Y OFICINA DE TURISMO COMARCAL DE LA CUADRILLA.

El presidente da cuenta de la propuesta de calendario de oficina de turismo que se ha elaborado, según se recoge a continuación:



CALENDARIO Y HORARIOS CENTRO INTERPRETACION VIA VERDE Y OFICINA DE TURISMO COMARCAL EN 2024.
2024AN VASCO NAVARRO BIDE BERDERAREN ETA ESKUALDEKO TURISMO BULEGOKO ORDUTEGI/EGUTEGIA.

ENERO/URTARRILA							FEBRERO/OTSAILA							MARZO/MARTXOA						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7	5	6	7	8	9	10	11	4	5	6	7	8	9	10
8	9	10	11	12	13	14	12	13	14	15	16	17	18	11	12	13	14	15	16	17
15	16	17	18	19	20	21	19	20	21	22	23	24	25	18	19	20	21	22	23	24
22	23	24	25	26	27	28	26	27	28	29				25	26	27	28	29	30	31
29	30	31																		

ABRIL/APIRILA							MAYO/MAIATZA							JUNIO/EKAINA						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5		3	4	5	6	7	8	9	
8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12	10	11	12	13	14	15	16
15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19	17	18	19	20	21	22	23
22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26	24	25	26	27	28	29	30
29	30						27	28	29	30	31									

JULIO/UZTAILA							AGOSTO/ABUZTUA							SEPTIEMBRE/IRAILA						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	2	3	4	5	6	7	8	
8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11	9	10	11	12	13	14	15
15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18	16	17	18	19	20	21	22
22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25	23	24	25	26	27	28	29
29	30	31					26	27	28	29	30	31		30						

OCTUBRE/URRIA							NOVIEMBRE/AZAROA							DICIEMBRE/ABENDUA						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	2	3	4	5	6	7	8	
8	9	10	11	12	13	14	4	5	6	7	8	9	10	9	10	11	12	13	14	15
15	16	17	18	19	20	21	11	12	13	14	15	16	17	16	17	18	19	20	21	22
22	23	24	25	26	27	28	18	19	20	21	22	23	24	23	24	25	26	27	28	29
29	30	31					25	26	27	28	29	30		30	31					

Solo mañana de 10:30 a 15:00 - Goizez bakarrik 10:30etatik a 15:00ak arte
 Mañana de 10:30-14:30 y Tarde de 16:30-19:00 - Goizez 10:30etatik 14:30ak arte
 Mañana de 10:00-14:30 y Tarde de 16:30-20:00 - Goizez 10:00etatik 14:30ak arte

Gaia eztabaidatu ondoren, Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako batzarkideek aho batez erabaki dute 2024rako turismo-bulegoaren egutegi-proposamena onartzea.

Debatido el asunto, la Junta de Cuadrilla acuerda, por unanimidad de los/as junteros/as asistentes, aprobar la propuesta de calendario de oficina de turismo para el año 2024.



**5. ARABAKO MENDIALDEARI BURUZKO
ESKUALDEKO HIRUHILEKO ALDIZKARI BATEN
EDUKIAK SORTZEKO, DISEINATZEKO,
MAKETATZEKO, INPRIMATZEKO ETA BANATZEKO
ZERBITZUAREN KONTRATUAREN BIGARREN
LUZAPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Presidenteak adierazi duenez, lizitatu ondoren, Arabako Mendialdeari buruzko eskualdeko hiruhileko aldizkari baten edukiak sortzeko, diseinatzeko, maketatze, inprimatzeko eta banatzeko zerbitzua arautzen duen kontratua 2021eko apirilaren 30ean formalizatu zen NATOURING TURISMO, COMUNICACIÓN Y MEDIO AMBIENTE SL eslependunarekin. Era berean, aipatu du kontratu horrek bi urteko exekuzio-epea zuela hitzartuta 2021eko maiatzaren 1etik aurrera, eta epe hori 2023ko apirilean amaitu zela.

Gerente-letratuak adierazi du, Interpretazio Zentroko kontratuarekin bezala, Kuadrilla Batzarrak 2023ko martxoaren 15ean egindako ezohiko bilkuran kontratu horren lehen luzapena onartu zuela, eta urtebeteko epe baterako indarrean sartu zela.

Gainera, gerente-letratuak adierazi du epearen amaiera bat datorrela prezioaren lehen eguneratzearekin. Kasu honetan, Administrazio Preskripzioen Agirietan xedatutakoaren arabera, eta gerente-letratuaren txostena ikusita, igoera honela kalkulatu da: eskaintako prezioaren % 70 eguneratu behar da 2024an sektore publikoan lan egiten duten langileen ordainsarien igoera berarekin (% 2). Horren guztiaren ondorioz, kontratuaren urte bakoitzaren prezioa 202,14 € igoko da, BEZik gabe, hau da, guztira 14.640,47 €, BEZik gabe.

Gerente-letratuak jakinarazi du iaz esleipendunak pleguetan aurreikusitakoa baino igoera handiagoa eskatu zuela, baina legez ezinezkoa zela adierazi zitzaioela (SPKLren 103. artikulua) eta lehengaiaren igoerak kontratatistak bere gain hartu behar zituela. Era berean, gerente-letratuak adierazi du esleipendunak ez ziola luzapenari uko egin, eta aurrean ez dela

5.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA SEGUNDA PRÓRROGA DEL CONTRATO DEL SERVICIO DE CREACIÓN DE CONTENIDOS, DISEÑO, MAQUETACIÓN, IMPRESIÓN Y DISTRIBUCIÓN DE UNA REVISTA COMARCAL TRIMESTRAL DE MONTAÑA ALAVESA.

El presidente recuerda que el, tras haberse licitado, el contrato que rige el servicio de creación de contenidos, diseño, maquetación, impresión y distribución de una revista comarcal trimestral de Montaña Alavesa se formalizó el 30 de abril de 2021 con la adjudicataria NATOURING TURISMO, COMUNICACIÓN Y MEDIO AMBIENTE S.L. Indica, a su vez, que dicho contrato tenía estipulado un plazo de ejecución de dos años desde el 1 de mayo de 2021, plazo que venció en abril de 2023.

El gerente-letrado expone que, al igual que con el contrato del Centro de Interpretación, en sesión extraordinaria de junta de Cuadrilla de 15 de marzo de 2023 se aprobó la primera prórroga del referido contrato, que entró en vigor por una anualidad.

El gerente-letrado refiere, además, que el vencimiento del plazo coincide con la primera actualización del precio. En este caso, según lo dispuesto en los Pliegos de Prescripciones Administrativas y a la vista del informe del gerente-letrado, el incremento se calcula a base de actualizar el 70 % del precio ofertado con el mismo incremento retributivo del personal al servicio del sector público en el año 2024 (2 %) Todo ello hace que el precio de cada anualidad de contrato aumente en 202,14 €, IVA no incluido, lo cual da un total de 14.640,47 €, IVA excluido.

El gerente-letrado informa que el año pasado el adjudicatario solicitó una subida superior a la prevista en los pliegos, pero se le indicó que no era legalmente posible (art. 103 LCSP) y que las subidas de la materia prima eran a riesgo y ventura del contratista. Indica, a su vez, que el adjudicatario no renunció a la prórroga y que este año tampoco ha sido así.



horrela izan. Orobat, zehazten du prezioak eguneratzeko irizpidea aldatu nahi izanez gero, enpresa guztiei irekitako lizitazio berria egin beharko litzatekeela. Idazkaritza-kontuhartzaitzaren txostena bidali da, eguneratze-irizpideak eta kalkuluak azalduz.

Xedapen zatia:

Kontratu horren hiru luzapenetako lehenengoa laster amaituko dela kontuan harturik.

Hiru luzapen egin daitezke, bakoitza urtebetekoa, kontratuaren iraupen osoa bost urtera luzatu arte.

Kontuan hartuta esleipendunak ez duela ez luzatzeko asmorik agertu Administrazio Preskripzioen Pleguan horretarako ezarritako epean.

Idazkaritzaren eta Kontuhartzaitzaren arloan aldeko txostenak ikusita.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratutako bederlatzi batzarkideek honako hau erabaki dute aho batez:

LEHENENGOA.- Arabako Mendialdeari buruzko hiru hilean behingo aldikari baten edukiak sortzeko, diseinatzeko, maketatzeko, inprimatzeko eta banatzeko zerbitzuen administrazio-kontratua urtez urte luzatzea.

BIGARRENA.- Prezioa eguneratzea proposamen teknikoan oinarrituta, prezioa 202,14 €-ko zenbatekoan igoz, BEZik gabe, 14.640,47 €-ra arte, BEZik gabe, 2024ko maiatzaren 1etik 2025eko apirilaren 30era.

HIRUGARRENA.- Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea esleipendunarekin lehen luzapeneko kontratu-agiria sinatzeko.

LAUGARRENA.- Erabaki hau esleipendunari jakinaraztea eta luzapeneko kontratu-agiria sinatzeko eskatzea.

Informa, además, que, de querer cambiar los precios y su criterio de actualización, sería preciso hacer una nueva licitación abierta a todas las empresas. Se ha remitido informa de secretaría-intervención explicando los criterios de actualización y los cálculos.

Parte dispositiva:

Resultando que la primera de las tres prórrogas posibles al presente contrato termina su vigencia próximamente.

Visto que es posible hacer tres prórrogas, de un año cada una, hasta alargar la duración total del contrato a cinco años.

Visto que la adjudicataria no ha mostrado la voluntad de no prorrogarlo en el plazo estipulado para ello en los Pliegos de Prescripciones Administrativas.

Vistos los informes favorables en materia de Secretaría y de Intervención.

Debatido el asunto, por unanimidad de los nueve junteros y junteras asistentes se acuerda lo siguiente:

PRIMERO.- Prorrogar el contrato administrativo de servicios de creación de contenidos, diseño, maquetación, impresión y distribución de una revista comarcal trimestral de Montaña Alavesa por una anualidad.

SEGUNDO.- Actualizar el precio en base a la propuesta técnica, aumentando el precio en 202,14 €, IVA excluido, anuales hasta 14.640,47 €, IVA excluido, durante la anualidad del 1 de mayo de 2024 al 30 de abril de 2025.

TERCERO.- Facultar al presidente de la Cuadrilla para la firma del documento contractual de primera prórroga con la adjudicataria.

CUARTO.- Notificar el presente acuerdo a la adjudicataria y emplazarla a la firma del documento contractual de prórroga.



**6.- BERRESTEA, HALA BADAGOKIO, INDARKERIA
MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN
ARRETA HOBETZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO
PROTOKOLOA.**

Presidenteak jakinarazi du indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko erakundeen arteko koordinazio-protokoloa prestatzeko 2018an hasitako lanak amaitu direla. Dokumentu hori bi ikastetxeek, Ertzaintzak eta Kuadrillako presidenteak berak sinatu dute.

Gerente-letratuak azaldu du Protokoloaren izaera juridikoa Jarduteko Protokolo Orokor batena dela, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak (SPAJL) 47.1 artikuluan ezarritakoaren arabera; beraz, Kuadrillako presidenteak ebazpen bidez onar dezakeen xedapen bat da.

Zehazki, honakoa ez da korporazioko osoko bilkurari berariaz esleitutako eskumena Kuadrillen Foru Arauaren arabera aplikatu beharreko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. Artikuluan arabera, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluan sar daiteke, alkatearen edo presidentearen eskumenaren hondar-klausulan.

Horrenbestez, Presidentziaren 3/2024 Ebazpenaren bidez onartutako protokolo hori berrestea proposatzen da, Kuadrillako Batzarraren adostasuna lortzeko asmoz.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratutako bederatzi batzarkideek aho batez erabaki dute adostasuna agertzea "*Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakundearteko koordinazio-protokoloa*" delakoaren aurrean.

**7.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ARABAKO
MENDIALDEKO KUADRILLAKO ADMINISTRAZIO
PUBLIKO ELEKTRONIKOAREN ORDENANTZA
ARAUTZAILEA.**

**6.- RATIFICACIÓN, SI PROCEDE, DEL PROTOCOLO
DE COORDINACIÓN INTERINSTITUCIONAL PARA
LA MEJORA DE LA ATENCIÓN A MUJERES
VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA.**

El presidente informa que se han culminado los trabajos iniciados en 2018 de un protocolo de coordinación entre distintas instituciones para atención de víctimas de violencia machista. El referido documento ha sido firmado por los dos centros escolares, la Ertzaintza y el propio presidente de la Cuadrilla.

El gerente-letrado expone que la naturaleza jurídica del Protocolo es la de un Protocolo General de Actuación en los términos expuestos por el artículo 47.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público - LRJSP-, de modo que se trata de una disposición que la presidencia de la Cuadrilla puede aprobar por medio de resolución.

Concretamente, no es una competencia expresamente atribuida al pleno de la corporación en el artículo 22 de la LRBRL aplicable en virtud de la Norma Foral de Cuadrillas, puede incardinarse en la cláusula residual de competencia de la alcaldía o presidencia del artículo art. 21.1.s) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local (LRBRL).

Por consiguiente, lo que se propone es la ratificación del referido protocolo, aprobado por Resolución de Presidencia nº 3/2024, a modo de recabar la conformidad de la Junta de Cuadrilla.

Debatido el asunto, por unanimidad de los nueve junteros y junteras asistentes se acuerda mostrar conformidad al "*Protocolo de coordinación interinstitucional para la mejora de la atención a mujeres víctimas de violencia machista*".

**7. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA
ORDENANZA REGULADORA DE LA
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA ELECTRÓNICA DE LA
CUADRILLA DE MONTAÑA ALAVESA**



Presidenteak eta gerente-letraduak azaldu dute testu hori beharrezkoa dela egun hauetan eskualdeko toki-erakundeetan abian jartzen ari diren egoitza elektronikoko berrietarako.

Xedapen-atala:

Administrazio elektronikoko berria abian jartzeari begira administrazio elektronikoa buruz Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreak Sailak bidalitako ordenantza-proposamena aintzat hartuta.

Arabako Mendialdeko Kuadrillan Herri Administrazioa arautzeko Ordenantza berria onartzeko testua aztertu ostean, Kuadrillari aplikatu ahal izateko beharrezko egokitzapenak egin ondoren.

Erakundeoko gerente-letraduak egindako Idazkaritzaren txostena aintzat hartuta, non onartzeko prozeduraren berri ematen den eta kasu zehatz honetan ez den beharrezkotzat jotzen kontsulta publikoa egitea.

Horrenbestez, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikulua arabera bozkatu da, eta bertaratutako bederatzi batzarkideen aldeko botoarekin, honako erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- Hasierako onepena ematea Arabako Mendialdeko Kuadrillaren Administrazio Publiko Elektronikoa arautzen duen Eskualdeko Ordenantza.

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea eta interesdunei hogeita hamar eguneko epea ematea erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Horretarako, erabaki hau ALHAOn eta Arabako Mendialdeko Kuadrillako iragarki-taulan argitaratuko da.

HIRUGARRENA.- Jendaurrean jartzeko aldia amaitutakoan, aurkeztutako erreklamazioak ebatziko dira eta dagokion behin betiko erabakia

El presidente y el gerente-letrado informan que se trata de un texto necesario para las nuevas sedes electrónicas que estos días se están poniendo en marcha en las distintas entidades locales de la comarca.

Parte dispositiva:

Vista la propuesta de Ordenanza remitida por el Departamento de Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava sobre administración electrónica de cara al lanzamiento de la nueva administración electrónica.

Visto el texto para la adopción de una nueva Ordenanza Reguladora de la Administración Pública en la Cuadrilla de Montaña Alavesa, tras realizar las adaptaciones pertinentes para que sea aplicable a la Cuadrilla.

Visto el Informe de Secretaría emitido por el gerente-letrado de la entidad, informando del procedimiento para la aprobación y de la no necesidad de tramite previo de consulta pública en este caso concreto.

Por consiguiente, y al amparo de establecido en el art. 49 de la LRBRL, se somete a votación y con el voto favorable de los/as nueve junteros/as asistentes se adopta el siguiente acuerdo:

PRIMERO.- Aprobar inicialmente la Ordenanza Comarcal Reguladora de la Administración Pública Electrónica de la Cuadrilla de Montaña Alavesa.

SEGUNDO.- Someter este acuerdo a información pública y dar audiencia a los interesados por el plazo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias, a cuyo efecto se publicará este acuerdo en el BOTHA y en el Tablón de Anuncios de la Cuadrilla de Montaña Alavesa.

TERCERO.- Finalizado el periodo de exposición pública, se adoptará el acuerdo definitivo que proceda, resolviendo las



hartuko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordio hau behin betiko onartuzat joko da, ordura arte behin-behinekoa izan dena.

LAUGARRENA.- ALHAOn argitaratuko dira behin betiko erabakia, kategoria horretara automatikoki igotako behin-behinekoa barne, eta akordioaren testu osoa.

BOSGARRENA.- Presidente jaunari gai honekin zerikusia duten era guztietako agiriak sinatzeko ahalmena ematea.

8.- PRESIDENTZIAREN INFORMAZIOAK ETA ESKAERAK ETA GALDERAK

Presidenteak hitza hartu du hainbat gairen berri emateko.

Lehenik eta behin, presidenteak azaldu du urtarrilaren 8an Arraia-Maeztun Haizean-Krean-ek haize-sorgailuei buruz emandako hitzaldira joan zela.

Bigarrenik, Guardian Arabako Errioxako Kuadrillako presidenteordearekin eta Salvador Velilla etnografoarekin egindako bileraren berri eman du. Bilera horretara Juan José Betolaza Pinedo batzarkideak lagundu zion. Bi eskualdeetako herrien artean, Arabako Errioxaren eta Arabako Mendialdearen artean, hainbat ibilbide sustatzeko asmoa dute. Ibilbide horietako batzuk dagoeneko badira eta horien inguruko ekitaldiak egiten dira, baina bileraren deitzaileen asmoa da egun berean zenbait puntutatik hainbat ibilbide egin ahal izatea. Bertaratutako batzarkideak ados daude ibilbideak sustatzearekin eta lehendik dauden ekitaldiak babestearekin; hala ere, zaila iruditzen zaie egun berean ibilaldi bat baino gehiago egiteko deialdi batek arrakasta izatea publiko berari zuzentzen zaiolako. Presidenteak horri buruzko informazioa ematen jarraituko du, baina, dirudienez, eskatu duten lankidetzak ibilbideak markatzean eta ekitaldiak zabaltzean datza.

Hirugarrenik, presidenteak azaldu du

reclamaciones que se hubiesen presentado. En el caso de que no se hubiesen presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente aprobado el presente acuerdo, provisional hasta ese momento.

CUARTO.- El acuerdo definitivo, incluyendo el provisional elevado automáticamente a tal categoría y el texto íntegro de la adopción se publicará en el BOTHA.

QUINTO.- Facultar al Sr. Presidente para suscribir y firmar toda clase de documentos relacionados con este asunto.

8.- INFORMACIONES DE PRESIDENCIA Y RUEGOS Y PREGUNTAS

El presidente toma la palabra para informar de varios asuntos.

En primer lugar, el presidente expone que el día 8 de enero asistió a una charla con Haizean-Krean en Arraia-Maeztu sobre aerogeneradores.

En segundo lugar, informa de una reunión en Laguardia con la vicepresidenta de la Cuadrilla de Rioja Alavesa y el etnógrafo Salvador Velilla a la que asistió acompañado del juntero D. Juan José Betolaza Pinedo. Tienen intención de fomentar distintas rutas entre distintas localidades de ambas comarcas, Rioja Alavesa y Montaña Alavesa. Algunas de estas rutas ya existen y ya se están celebrando eventos al respecto, pero la intención de los convocantes de la reunión es poder hacer varias rutas el mismo día desde distintos puntos. Los/as junteros/as asistentes se muestran de acuerdo en que se fomenten las rutas y se apoyen los eventos que ya existen, aunque consideran difícil que una convocatoria para hacer varias un mismo día tenga éxito, por ir dirigida al mismo público. El presidente continuará informando al respecto, pero parece que la colaboración que necesitan es marcar las rutas y difundir los eventos.

En tercer lugar, el presidente explica

**ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)**



**CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ALAVA)**

urtarrilaren 23an, Arabako Industrialdea-rekin bilera izan ondoren, indarrean dauden hitzarmena eta kontratua berritzeko eskatu dela. Izan ere, akordio horiei esker, Kuadrillak Aldako pabiloietako bat alokatuta dauka oso baldintza oso onuragarrietan.

Laugarrenik, presidenteak urtarrilaren 26an Fiturren izan zela jakinarazi du. Bertan, Arabako Foru Aldundiko turismo-arloko hainbat ordezkariarekin egon ahal izan zen, eta beste lurralde batzuetatik ikasi ahal izan zuten.

Bosgarrenik, presidenteak jakinarazi du bilera bat egin zuela Jon Nogales Bide Azpiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren Saileko foru-diputatuarekin. Bilerara Larraitz Waliño Arana presidenteorde andreak eta gerente-letratuak lagundu zuten. Bileran horretan, Kuadrillaren eta neguko bide-garbitzeko zerbitzuaren esleipendunen eskaera nagusiak helarazi zizkieten. Ondoren, beste bilera bat egin zen Kuadrillako egoitzan bertan, eta hara diputatuaren taldeko teknikari bat bertaratu zen.

Seigarrenik, otsailaren 6an, turismo mahai informatiboa egin zen, AFari arlo horretako dirulaguntzetan eska zitezkeen proiektuak aztertzeko.

Zazpigarrenik, otsailaren 15ean bilera egin zen hondakinen arloko sentsibilizazio-kanpainari buruz erabakitzeko. Kanpainan bideo bat eta horren hainbat bideo-laburpen sortuko dira, bai eta aurreko kanpainako totem erakusketa ibiltariak ere.

Zortzigarrenik, otsailaren 16an bilera bat egin zen Arabako Foru Aldundiko Turismo eta Natura Inguruneen zuzendariarekin, Mina Lucía bisiten inguruan. Bileran horren ondoren, beste bilera bat egin zen Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Saileko teknikariarekin. Sail horrek bere gain hartuko ditu aurtengo bisitak, Kuadrillak kudeatzen jarraituko dituenak, nahiz eta kontratuaren kudeaketa Arabako Foru Aldundiaren esku egongo den.

que tras una reunión mantenida el 23 de enero con ellos, se ha solicitado la renovación del convenio y del contrato vigentes con Arabako Industrialdea que hacen posible tener arrendado uno de los pabellones de Alda en unas condiciones muy ventajosas.

En cuarto lugar, el presidente da cuenta de su asistencia a Fitur el 26 de enero, donde pudo estar con distintos representantes en materia de turismo de la Diputación Foral de Álava y aprender de otros territorios.

En quinto lugar, el presidente informa de una reunión mantenida con el diputado foral de infraestructuras viarias y movilidad sostenible Jon Nogales, a la que asistió acompañado de la vicepresidenta D^a Larraitz Waliño Arana y el gerente-letrado. En dicha reunión se trasladaron las principales demandas de la Cuadrilla y los adjudicatarios del servicio de limpieza viaria invernal. Posteriormente, tuvo lugar otra reunión en la propia Cuadrilla a la que se desplazó un técnico del equipo del diputado.

En sexto lugar, el 6 de febrero tuvo lugar una mesa de turismo informativa en que se examinaron los distintos proyectos posibles a solicitar a la DFA en sus subvenciones en esta materia.

En séptimo lugar, el 15 de febrero tuvo lugar una reunión para decidir al respecto de la campaña de sensibilización en materia de residuos. Esta campaña consistirá en un video y varias píldoras del mismo, así como exposiciones itinerantes de tótems de la campaña anterior.

En octavo lugar, el 16 de febrero tuvo lugar una reunión con los directores de turismo y de medio natural de la Diputación Foral de Álava para tratar las visitas a Mina Lucía. A esta reunión siguió otra celebrada con los técnicos del departamento de Medio Natural de la Diputación Foral de Álava, que es quien va a hacerse cargo de asumir económicamente las visitas de este año, que seguirá gestionando la Cuadrilla, si bien la gestión del contrato dependerá de la Diputación Foral de Álava.

**ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)**



**CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ALAVA)**

Bederatzigarrenik, martxoaren 6an, Antoñanako Interpretazio Zentroko automotorren pabiloia birgaitzeko proiektuaren erredaktorearekin bilera egin zen.

Hamargarrenik, otsailaren 22an Izki LGEn batzarra egin zen. Gai horren harira, martxoaren 21ean, osteguna, zuzendaritza-batzordea egongo da.

Hamaikagarrenik, presidenteak azaldu du martxoaren 5ean bisita egin zuela Iparraldeko biomasa-instalazio batera, zurezkoa zein bero-sarekoa. Dagoeneko bi enpresari aurrekontua eskatu die, 10.000 € ingurukoa, bideragarritasun-azterlana egiteko. Hala ere, udal edo administrazio-batzorderen batek eskatu behar du, kuadrillek eskatu ezin duten laguntza-lerroa delako. Bisitara joan zen Urtzi Gaintzarain Gonzalez de Durana jaunak instalazio horien bertuteen balioa azpimarratu du, lanpostuei eta mendien kudeaketari dagokienez. Batzarkideak instalazioen kokapena erabakitzeke zailtasunari buruz mintzatu dira eskualde osoari zerbitzua eman ahal izateko, eta mendien titulartasun-erregimenak anitzak direla kontuan hartuta. Azkenik, bertaratutakoak ados agertu dira bideragarritasun-azterlana egiteko dirulaguntzaren eskaera udal batek edo administrazio-batzar batek egitea hoberena izango litzatekeela. Horretarako, komenigarria izan liteke erakunde horiekin bilera bat egitea, presidente jaunak eta Enrique Javier Moraza Pérez jaunak adostu dutenez.

Hamabigarrenik, presidenteak jakinarazi du martxoaren 11n kazetari irlandar baten bisita egin zela turismoa sustatzeko. Ibilbide bat egin zitzaion, eta, besteak beste, Golf zelaia, Izkiko parkea eta Mina Lucia bisitatu zituen. Ibilbidea aldatzea proposatzen da Belgikako kazetari batentzat aurreikusita dagoen hurrengo sustapen-bisita baterako.

Hamahirugarrenik, presidenteak jakinarazi du martxoaren 11n egin zela emakumeen aurkako erasoen kontrako

En noveno lugar, el 6 de marzo tuvo lugar una reunión con la redactora del proyecto de rehabilitación del pabellón de automotores en el Centro de Interpretación de Antoñana.

En décimo lugar, el 22 de febrero se celebró la asamblea de la ADR Izki. Al hilo de este asunto, el jueves 21 de marzo habrá junta directiva.

En undécimo lugar, el presidente explica la visita que realizó el 5 de marzo a una instalación de Biomasa tanto de madera como de red de calor en Iparralde. Ya ha solicitado un presupuesto a dos empresas para hacer un estudio de viabilidad que oscila los 10.000 €. Sin embargo, debe solicitarlo algún ayuntamiento o Junta Administrativa, pues no es una línea de ayudas que las Cuadrillas puedan solicitar. El Sr. D. Urtzi Gaintzarain Gonzalez de Durana, que asistió a la visita, pone en valor las virtudes de estas instalaciones en cuanto a puestos de trabajo y gestión de monte. Los junteros/as debaten sobre la dificultad de decidir la ubicación de las instalaciones para que puedan dar servicio a toda la comarca y por el distinto régimen de titularidad de los montes. Finalmente, los/as asistentes se muestran de acuerdo en que lo mejor sería que la solicitud de subvención para hacer el estudio de viabilidad la hiciese algún ayuntamiento o junta administrativa. Para ello, una reunión con estas entidades podría ser conveniente, según convienen el Sr. presidente y el Sr. D. Enrique Javier Moraza Pérez.

En duodécimo lugar, el presidente informa que el 11 de marzo tuvo lugar una visita de un periodista irlandés a efectos de promoción turística. Se le hizo una ruta en la que, entre otros, visitó el campo de Golf, el parque de Izki y la Mina Lucía. Se propone variar el recorrido para una próxima visita de promoción que hay prevista para un periodista belga.

En decimo tercer lugar, el presidente informa que el 11 de marzo también tuvo lugar la primera sesión para cargos electos sobre el

**ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)**



**CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ALAVA)**

protokoloari buruzko hautetsientzako lehen saioa, eta bigarren saioa 25erako aurreikusita dagoela. Aldi berean, Administrazio Batzarrekin, jai-batzordeekin eta jaialdiekin lan egiten ari da berdintasun zerbitzua.

Hamalaugarrenik, presidenteak jakinarazi du Kuadrillako ekonomia sustapenerako sailak bi ikastaro atera nahi dituela. Bata, zama-orga jasotzailearena, eta, bestea, pertsonen plataformei buruzkoa. Ikastaro horiek duela urte batzuk egin ziren, eta haien indarraldia iraungita edo iraungitzear egongo da. Kuadrillako herriren batean egingo lirateke, eskualdetik kanpoko herrietara joan beharrik gabe. Izen-emateek eskuragarri dauden plazak gaitutuko balituzte, izena emango dutenak hautatzeko ezarritako irizpideen berri eman du presidenteak. Eztabaida baten ondoren, iraupen luzeko langabeen parte-hartzea sustatzea eta emakumeen eta gizonen arteko orekari eustea erabaki da, araudiak baimentzen duen neurrian. Erabaki gabe dago zein herritan egingo diren.

Azkenik, presidenteak jakinarazi du hainbat pertsonarekin jarri dela harremanetan zerbitzu fisioterapeutikoa eskaintzeko. Batzuek ez dute interesik, baina baten batekin harremanetan daude. Lehentasuna fisioterapiako prestakuntza duen norbait aurkitzea da, eta, bestela, horrekin lotutako prestakuntza duten pertsonak bilatzea.

Aztergai gehiagorik egon ez denez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du, goian aipatutako eguneko 19:40ean. Eta, aztertu dena eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egiten dut. Akta hau hurrengo bilkurara arte ez da onartuko. Gerente-letradua naizen aldetik, nire sinadurarekin ziurtatzen dut akta hau, eta presidente jaunak sinatzen du.

PRESIDENTEA

D. EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ jn.

protocolo contra agresiones a mujeres, habiendo una segunda sesión prevista para el día 25. Paralelamente, se está trabajando con Juntas Administrativas, comisiones de fiestas y festivales desde el servicio de igualdad.

En decimo cuarto lugar, el presidente informa que desde el departamento de promoción económica de la Cuadrilla se quieren sacar dos cursos. Uno, de carretilla elevadora de carga y, otro, de plataforma de personas. Se trata de cursos que ya se realizaron hace años y cuya vigencia caduca o estará próxima a hacerlo. Se harían en alguna de las localidades de la Cuadrilla, evitando desplazamientos a localidades ajenas a la comarca. El presidente informa de los criterios establecidos para escoger a quienes se inscriban, en caso de que hubiese una demanda superior a las plazas. Tras un debate, se acuerda fomentar la participación de personas desempleadas de larga duración y mantener un equilibrio entre mujeres y hombres en los términos que permite la normativa. Queda pendiente decidir en qué localidad se harán.

Finalmente, el presidente informa que se ha contactado con distintas personas de cara a ofertar el servicio fisioterapéutico. Algunas no están interesadas, aunque se está en contacto con alguna. La prioridad es encontrar a alguien con la formación en fisioterapia y, si no, buscar personas con formación relacionada.

No habiendo más asuntos que tratar, el Sr. presidente levanta la Sesión, siendo las 19:40 horas del día arriba indicado, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta, que queda pendiente de aprobación hasta la próxima sesión que se celebre, y que firma el Sr. presidente y certifico con mi firma como gerente-letrado.

GERENTE-LETRADUA

D. ÁLVARO CASTILLO CORDERO jn.